xedatutakoarekin bat etorriz, Okondoko udalerriko 3 poligonoko 65 lurzatian zentro hipiko bat jartzea, lurzoru urbanizaezinaren sailkapena eta erabilera mugatuko nekazaritzarako lurraren kalifikazioa duen lurzoruan, Aijebe klub hipikoak sustatutako espedientearen arabera.

Bigarrena.- Adierazpen horrek ez du kentzen proiektua gauzatu aurretik legeak agintzen duen udal baimena eskuratu beharra, ez eta udala erabaki hau edo bestea hartzera behartzen ere.

Hirugarrena.- Interes publikokotzat jotzeak ez du administrazio bidea amaitzen, ezta horrek aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik; dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, Okondoko Udalak baimena emateko edo ukatzeko ebazpena ematen duen arte. Orduan aurkeztu ahal izango da ebazpen horren aurkako errekurtsoa.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 21a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Diputatua, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.

y Urbanismo, la instalación de un centro hípico en la parcela nº 65, polígono 3 del municipio de Okondo, en terreno clasificado como suelo no urbanizable y calificado como suelo agrícola de uso limitado, según expediente promovido por el Club Hípico Aijebe.

Segundo.- La presente declaración no exime de la obligación de obtener la preceptiva licencia municipal con carácter previo a la ejecución del proyecto, ni prejuzga el contenido del acuerdo municipal correspondiente.

Tercero.- La declaración de interés público no pone fin a la vía administrativa ni impide su continuación y, consecuentemente, no resulta susceptible de recurso alguno, que únicamente podrá dirigirse contra la Resolución de otorgamiento o denegación de la licencia por parte del Ayuntamiento de Okondo, en calidad de Órgano competente para dictar el acto administrativo que proceda.

Vitoria-Gasteiz, a 21 de junio de 2010.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**4297**

**427/2010 FORU AGINDUA, ekainaren 17koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena. Honen bidez, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren otsailaren 3ko 39/2010 Foru Agindua aldatzen da, zerga obligazio eta eredu zehatzak bide telematikoz eta Interneten bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituena.**

Otsailaren 3ko 39/2010 Foru Aginduaren bidez zehazten dira zerga obligazio eta eredu zehatzak bide telematikoz eta Interneten bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura, bide telematikoz eta Interneten bidez aurkeztu behar diren zerga aitorpenak, betebehar hori zein subjektu eta erakunderi dagokion eta berau gauzatzeko jarraitu beharreko prozedura.

Hala ere, beharrezkoa da foru agindu hori aldatzea, maiatzaren 27ko 358/2010 Foru Aginduak emandako idazketari jarraituz, 1. artikuluaren lehen idatz zatian, autolikidazioei buruzko paragrafoan, hizki berri bat txertatzeko, n) hizkia hain zuzen ere.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, honakoa

XEDATU DUT

Artikulu bakarra. Zerga obligazio eta eredu zehatzak bide telematikoz eta Interneten bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituen otsailaren 3ko 39/2010 Foru Aginduaren 1. artikuluaren lehen idatz zatian, autolikidazioei buruzko paragrafoan, hizki berri bat txertatuko da, n) hizkia hain zuzen ere; hona hemen:

“n) 391 eredua (Erregimen erraztua. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urteroko aitorpen-kitapena).

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean egongo da indarrean eta aurkezteko borondatezko epea 2010eko urtarrilaren 31tik aurrera duten zerga aitorpenei aplikatuko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 17a.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**4297**

**ORDEN FORAL 427/2010, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de 17 de junio, de modificación de la Orden Foral 39/2010, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de 3 de febrero, por la que se establecen las condiciones generales y el procedimiento para la presentación telemática por Internet para determinados obligados tributarios y modelos.**

En la Orden Foral 39/2010, de 3 de febrero, por la que se establecen las condiciones generales y el procedimiento para la presentación telemática por Internet para determinados obligados tributarios y modelos, se especifican las declaraciones tributarias a las que se ha considerado conveniente hacer obligatoria la utilización de la vía telemática por Internet, así como los sujetos y entidades a quienes se les impone la referida obligación y el procedimiento a seguir para su materialización.

No obstante lo anterior, es preciso modificar la citada Orden Foral con la finalidad de incluir en el apartado Uno del artículo 1, según redacción dada por la Orden Foral 358/2010, de 27 de mayo, una nueva letra la n) en el párrafo Autoliquidaciones.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Artículo Único. Se añade una nueva letra, la n), en el párrafo Autoliquidaciones, del apartado Uno, del artículo 1 de la Orden Foral 39/2010, de 3 de febrero, por la que se establecen las condiciones generales y el procedimiento para la presentación telemática por Internet para determinados obligados tributarios y modelos, con la siguiente redacción:

“n) Modelo 391 (Régimen Simplificado. Declaración-liquidación anual Impuesto sobre el Valor Añadido).”

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente a el BOTHA y será de aplicación a las declaraciones tributarias cuyo plazo de presentación en período voluntario comience a partir del 31de enero de 2010.

Vitoria-Gasteiz, 17 de junio de 2010.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.